

2€ Año XXI. Número 7.179


GIPUZKOAR GUZTION EGUNKARIA

Asteartea, 2025eko irailaren 16a

Noticias de


Gipuzkoa

'KATERIÑE', GERRAKO OIHUA KOMIKI ERAN // 40. OR.



monte

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN



Maitena Illarramendi eta Iñigo Sarasola 'Monti', atzo, Donostian, 'Kateriñe' komikiaren aurkezpenan.

‘Kateriñe’, gerrako oihua komiki eran

IRAKURLEAK BINETA BAKOITZEAN SENTI DITZAKE KATERIÑE LETAMENDIK GERRATE GARAIA PASATAKO BIZIPENAK

Asier Oiarbideren erreportajea Argazkia Iker Azurmendi

Donostian aurkeztu zuten atzo goizean *Kateriñe*, komiki berezi bezain hunkigarria. Maitena Illarramendik ekarri du argitara, bere amama Kateriñe Letamendiren hitzei eta bizipenei forma emanez. Tolosarra zen Kateriñe, eta idaztea gustuko zuenez, eguneroko batean gordezten zituen bere bizipenak.

Orain komiki bilakatu dituzten testuak, 1936ko uztailaren 19an, Gerra Zibila lehertu zen egunean

hasi zituen Kateriñek. Garai iluna izan bazen ere, ez zuen ohitura hura galdu; tamalez, beldurak jota, egunerokoa suntsitzea erabaki zuen. Hala ere, urte asko pasa eta gero, 90 urte betetzear zela, suntsitutako egunerokoan idatzitako istorioak berriro idatzi zituen, isilpean gordeta eduki zuen mina paperean askatuz.

Haren biloba zen Maitena, eta berak hartu zuen testu haiei bizitza berria ematearen ardura. Ez zuen

Kateriñe Letamendi tolosarrak Gerra Zibilan zehar eguneroko batean idatzitako testuak dira orain komiki bilakatu direnak

bakarrik egin, ordea. Familiako lagun hurbila den Iñigo Sarasola *Monti*-rekin batera jardun du. *Monti*-k aspalditik zuen buruan Kateriñeren hitzei irudiak jartzea, eta zeharo harritu zen Maitena, jakin zuenean, urteetan bere kasa egin-dako lan asko prest zuela jada. Istoriok marrazteko, gainera, dokumentazio lan sakona burutu behar izan du, garai hartako autoak, Tolosa eta Donostiako kaleak, Bilboko eraikin historikoak edo Hendaiara arteko ihesaldia zehaztasunez marraztu ahal izateko.

OIHUA Komikia, ordea, irudi ederretatik haratago doa: irrintzi bat da, oihu kolektibo bat. Maitenak aurkezpenan azaldu zuenez, bere amamaren hitzetatik abiatu arren, komikian ez da soilik Kateriñeren ahotsa antzematen, beldurra, gosea, ihesaldia eta familia babesteko borroka bizi izan zuten guztien baizik. “Ez da propaganda, ez eta historia liburu hutsa ere”, azaldu zuen. “Bizipen errealek dira, hezur-retaraino sartzen direnak. Gerra ez da soilik bonbak jaustea: etxea

galtzea, senideak galtzea, ihes egitea, amama negarrez ikustea. Eta orain, bere malkoak hitz bihurtzea”.

Izan ere, komikian bi ikuspegi uztartzen baitira: aitonarena eta amamarena, bi testigantza, eta bi horien arteko elkarrizketa. Denek partekatzen dute, ordea, mezu bera: “Gerrak ez dezala berriro errepikatu, ez hemen ez beste inon ere, gure herriak bizi izan zuen sufrimendua”.

Kateriñeren azken irrintzia, bilobaren eskutik eta *Monti*-ren irudien galbahetik pasata, gaur egunera iritsi zaigu. Baina oihu hura ez da soilik iraganeko orrialde batean geratuko. Gaurko irakurleari ere heltzeko asmoz jaio da, gure barrenetan zerbait mugiarazteko. *Kateriñe* komikia ez da besterik gabe memoria historikoa gordezteko lana. Amama baten ahotsa da, eta hein berean baita belau-naldi oso baten irrintzia ere. Irakurleak bineta bakoitzean senti dezake garai hartako gerraren iluntasuna, eta amamak Maitenari esan ohi zion legez, “gerra ezin da ulertu, bizi egin behar da”. ●